

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektuan edukiko ditugun kostuak honako hauek izango dira:

Hasteko, guk lokal propio bat eduki beharko dugu, bertatik Bilbotik iritsitako produktuak etxeetara bidaltzeko, gauza guztiak antolatzeko eta bezeroekin harremanetan jartzeko. Lokal hau alokatua denez, bere kostu guztiak hilabeteko 500€ ingurukoak izango dira: zuzena eta finkoa. Bertan ordenagailuak eta telefonoa edukiko ditugu, beraz, hauek ere kostu bat izango dute. Telefonoaren tarifa hilabeteko gutxi gora behera 18€koa eta ordenagailu bakoitzak 585€ balioko dute.

Guk egindako diseinua Bilbora bidaliko dugu, eta bertan produktua fabrikatuko dute. Horrek beste kostu bat edukiko du, hortz garbigailu bakoitza egiteagatik 35,45€. Kostu hau eskatutako produktuen kopuruaren arabera izango da, hots, aldakorra. Eta aldi berean zeharkakoa, izan ere, guk Bilboko fabrikaren nagusiari orainduko diogu, eta ondoren bera arduratuko da bere langileei ordaintzeaz. Baina guk hemen garestiago salduko dugunez, bertatik irabaziak lortuko ditugu.

Beste kostu bat produktuen garraioa izango da. Lehenik Bilbotik gure lokalera, eta ondoren, bezeroen etxeetara. Garraio hauen kostua 15€ 50-70 kiloko izango da. Ondoren, bezero bakoitzari bere produktua bialdi beharra zaio, eta horren produktu bakoitzeko 5€koa izango da. Kostu guzti hau zuzena eta aldakorra izango da.

Hortaz gain, gure enpresako langileen soldata ere ordaindu beharko dugu, hilabeteko batz besterik 1200€koa, baina beti ere egiten duen lanaren arabera.